

Euskal Herritik mundura

Mundutik Euskal Herrira

KULTUR
ANIZTASUNAREN
JAIA

M30
Larunbata

12,00etan

Umeentzako munduko jolasak (Plazan)

13,00etan

Munduko janariaren dastaketa (Plazan)

13,00etan

Umeentzako ipuin kontalaria (Andikona plazan)

Kale animazioa goiz osoan zehar (gaiteroak, txistulariak
eta trikitilariak)

18.30etan

La Pulga flamenko ikuskizuna (Andikona plazan)

Ondoren Urbiribil dultzaina taldeak eta Lagun artean
kantari taldeak Otxandioko kaleak alaituko dituzte




Bestalde


Gite
ipes



Mundutik Euskal Herrira

Euskal Herritik mundura

M29
Ostirala

Dokumentala
Migrazioari buruzkoa

Hitzaldia

Oihana San Vicente (psikologoa)
/ Migrazioa eta ondorio psikologikoak

Otxandio · Kultur Etxea · 19:00




Bestalde


Gite
ipes



Otxandio biztanle berrien aurrean

Migrazioa betidanik egon den, dagoen eta egongo den fenomeno da. Hainbat izan ziren, duela hamarkada batzuk, gerra eta gosetea ekiditeko herria utzi eta Hego Amerika joan ziren herritarrek. Gaur egun ere, hainbat dira hemen lanik aurkitu ez eta bere ikasketekin zerikusia duten lanpostuaren bila atzerrira doazen herritarrak. Otxandion, edo zure herrian, sortutako zenbat herritar bizi dira herritik kanpo? Eta aldi berean, arrazoi ezberdinengatik atzerritik gure herrira bizitzera datozen herritarrak ere gero eta gehiago dira. Jendeak eskubidea du munduan zehar bere bizimodua bilatzeko, eta beraz, elkartzasunez, datozen etorkinentzako besoak zabalik izan behar ditugu.

Bizilagun berri hauei harrera egoki bat eskaini eta herrian integratzeko ahalegina egitea ezinbestekoa da, hauek eskaintzen dioten aniztasuna herriaren garapenerako aberasgarria dela benetan sinesten duen herri batentzako. Izan ere, Otxandio bertan bizi garen pertsona guztiok osatzen dugu eta denok gara garrantzitsuak herriaren garapen sozial, humano zein ekonomikorako. Bestalde, nola sentituko ginateke gu munduaren beste izkinako herri batean, zeinetan kultura, hizkuntza eta oro har bizitzeko eta pentsatzeko beste era bat duten txoko batean? Eta gainera bizilagunak existituko ez bagina bezala jokatu balute? Ezin dugu fenomeno honen aurrean ez-ikusiarrena egin; esku hartu beharreko gaia da migrazioarena.

Guk ez dugu nahi herrira datozenek beraien kultura, hizkuntza eta ohiturak baztertzetik, ezta horiek mantentzearen beste herritarrengandik bereiztuta bizitzetik; guk ezberdinen arteko elkarbizitzan eta herritar guztion inklusioan sinesten dugu. Kultura ezberdinen arteko elkarbizitza posible dela uste dugu. Aniztasun horrek herria eta herritarrak aberasten baikaitu.

Guzti hau dela eta, Otxandioko Udalean, Giza Eskubideen Batzordearen baitan, migrazioa lantzen duen azpi-batzorde bat osatu da. Talde horrek, lehenengo eta behin, Otxandioko egoera aztertu du. Izan ere, etorkin hitza bere esanahi zabalenean hartu eta bere aldaera guztiei erantzuteko beharra ikusi da. Badira Euskal Herriko beste herri batzuetatik datozen herritarrak, zeintzuk hizkuntza arazorik izan ez arren, oinarritzko informazioa eskainita herrian errazago moldatu eta integratu litezkeenak. Beste batzuk, Espainiar estatutik datoz eta hauek hizkuntza arazoez gain, ezberdintasun kultural nabarmenekin egiten dute topo. Eta zer esanik ez Europako edo munduko beste txokoetatik datozen herritarrak.

Etorri berrien beharrez hainbat direla ohartuta, hauei erantzuteko tresnak sortzeari ekin dio lan-talde honek; beti ere, bi

kolektiborekin egin behar dela lana kontutan hartuta, alde batetik etorri berriekin eta bestetik hauei harrera egin behar dioteneekin, hau da, Otxandioko herritarrekin.

Herrira bizitzera datozeinei begira, harrera protokolo bat zehaztu da. Horrela, iritsi berriari herriko baliabide gida bat emango zaio zerbitzu ezberdinen berri izan dezan. Horrez gain, Udal Giza Eskubide Batzordeko ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko zaio. Honek hasierako harrera egin eta herriko harrera taldearen berri emango dio. Ondoren, eta nahi izanez gero, harrera talde horretako partaide batek herria erakutsi eta oinarritzko informazioa emateaz gain, hasierako zalantza guztiak argituko dizkio. Aurrera begira, etorri berriarentzako erreferentia bihurtu daiteke pertsona hori.

Herritar berria espazio berrian kokatuta, hurrengo urratsa bere inklusioa ahalbidetzeko tresnak eskaintzea izango da. Alde batetik, euskera ikasteko klaseak eskaintzen dira; berau baita, euskeraz bizi nahi duela erabaki duen Otxandio moduko herri batean zein Euskal Herrian oro har, integrazio sozialerako tresna kultural eraginkorrenetako bat. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak eskolan zailtasunak dituzten, edota testuinguru, baliabide zein estimulu aproposa ez duten (etxean euskaraz ez dakiteneen kasua adibidez) LHko hirugarren zikloko ikasleei zuzendutako Bidelagrama programan parte hartzeko aukera ere aztertzea da.

Aurretik aipatu bezala, herritarrekin gai hau lantzea ezinbestekoa da, hauek gai honekiko duten kontzientzia astinduz, hauen jokamolde eta jarrera egokiak ezinbestekoak izango baitira etorri berriaren integrazioan. Gainera, kontutan eduki behar dugu krisi ekonomikoaren eraginpean jarrera arrazistak ugaritzen ari direla, eta sarri, aurreiritzi eta zurrumurru okerretan oinarritzen direla etorri berrien aurrean ditugun jarrerak. Gai honetan ordezkari politikok arduratsu jokatu eta aniztasuna guztiontzako aberasgarria denaren ideia zabaldu beharra dugulakoan gaude. Eta azkenaldian ordezkari politiko batzuen ahotan entzun ditugun adierazpenek ez dute batere mesederik egiten lan horretan, Gasteiz zein Sestaoko alkateen adierazpenak kasu.

Kontzientziario lan hau egiteko, herritarrekin gaia landu, eztabaiatu, aztertu eta ikuspegi kritikoa garatu nahi da. Eta horretarako GITE-IPES eta BESTALDE elkarteekin elkarlanean, hitzaldi eta jardunaldi ezberdinez osatutako ziklo bat garatu da aurreko hilabeteetan zehar. Emaitzak interesgarri bezain emankorrak izan direla uste dugu.

Finean, kolore eta jatorri askotako herritarrez osatutako jendarteak osatzen dugu Otxandio, eta argi dugu aniztasun horrek eskaintzen digun aberastasun horri, elkarbizitza eta integrazioaren bitartez, herriaren eta herritarren mesederako ahalik eta probetxu gehien ateratzeko konpromisoa eta betebeharra dugula.

Santi Uribe Laka
Otxandioko Alkatea
Udal Migrazio Batzordearen izenean

KULTUR ANIZTASUNAREN JAIA

M30

Larunbata

12,00etan

Umeentzako munduko jolasak (Plazan)

13,00etan

Munduko janariaren dastaketa (Plazan)

13,00etan

Umeentzako ipuin kontalaria (Andikona plazan)

Kale animazioa goiz osoan zehar (gaiteroak, txistulariak eta trikitilariak)

18.30etan

La Pulga flamenko ikuskizuna (Andikona plazan)

Ondoren Urbiribil dultzaina taldeak eta Lagun artean kantari taldeak Otxandioko kaleak alaituko dituzte

GU handi bat izatea dugu helburu

Gizateriaren historia migrazio eta nomadismoaren historia da. Guragatik edo, batez ere, beharragatik, kolektibo etnia, jendarte, komunitate pertsonak,... lurralde batetik bestera mugitu dira, kultura batetik bestera.

Euskal jendarte historikoki jendarte emigratzailea izan da. Gure arbaso askok maletak bete eta pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko forma berriak jorratzeari ekin zioten, ez beti beren borondatez, baina bai ingurune ezezagun eta ezberdin bati egokitze beharragatik.

Haiek egin bezala, edo egun gure gazte askok egin behar duten bezala, Euskal Herrira beste lurraldeetako pertsonak heldu dira. Gehiengo bizi egoera ezberdinek bultzatuta, asko arrazoi ekonomikoengatik. Gainera, bere ohitura kultural, laboral, sozial eta afektiboak aldatu behar izan dituzte. Bere familietan ere ematen den inpaktua. Orokorrean ez da migratu nahi izaten, baina egoerak horretara eramaten du.

Edonongoa izanda ere, argi dago inork ez duela bere ohiturekin eta bizitza moduekin apurtu nahi, gutxiago lotura afektibo eta familiarrekin.

Hala, hizkuntza, sinismen, ohitura, bizimodu, mundu ikuskera eta bizitza zentzu ezberdina duten pertsonen topaketa konplexua ematen da. Askotan, ezagutza faltarengatik, jendarte ezberdinen parte diren pertsonak doan gutxiesten dira, euren bizimodua inguratzen duten adierazpen kulturalak gutxiesten diren bezalaxe.

Folklorismo eta paternalismotik urrun, Otxandion abiatu moduko dinamiken bidez, BESTALDE elkarte migrazio fenomenoaren iturburu ezagutzeko lan pedagogiko bat egin nahi dugu, empatia sortzeko lan bat, aurreiritzi eta estereotipoak deseraikitze lan bat, bizilekua aldatzeak sortzen dituen arazoaren gaineko hausnarketa lan bat, beste lekuetatik heldu diren problematika, kultura eta errealitate ezberdinei hurbiltzeko lan bat.

Mezu negatiboen aurrean, aniztasuna era positiboan azaltzea da helburua, elkar ezagutza sustatzea; Parte hartzea, protagonismoa sustatzeko.

Besteak eta gu izatetik GU handi bat izatea dugu helburu.

BESTALDE elkarte

De ell@s y nosotr@s a un gran nosotr@s.

La historia de la humanidad es la historia de la migración y el nomadismo. Colectivos, etnias, sociedades, comunidades, personas... se han trasladado de un territorio a otro, de una cultura a otra, por deseo o, especialmente, por necesidad.

La sociedad vasca ha sido históricamente una sociedad emigrante. Muchos de nuestros antepasados cargaron sus maletas, configurando una nueva forma de pensar, de sentir y de actuar, no siempre por voluntad propia pero sí por la necesidad de adaptarse y sobrevivir en un medio desconocido y diferente.

Tal y como hicieron ellas y ellos, o como se ven obligados a hacer hoy muchos de nuestras y nuestros jóvenes, a Euskal Herria han llegado personas desde otras tierras. En su gran mayoría, vienen obligadas por unas circunstancias vitales, en muchos casos económicas. Además han tenido que modificar sus tradiciones culturales, laborales, sociales y afectivas. Un impacto que se produce también en sus familias. Por lo general no se desea emigrar, pero la situación conduce a hacerlo.

Está claro que ninguna persona, sea de donde sea, proceda de donde proceda o tenga la cultura que tenga, desea romper con sus tradiciones, sus costumbres, sus formas de vida y, más aún, con sus vínculos afectivos y familiares.

Y así es como se produce un complejo encuentro de personas cuyo idioma, creencias, costumbres, estilo de vida, visión de la vida y sentido de vida son distintos. En muchas ocasiones, por falta de conocimiento, se descalifica gratuitamente a la persona o personas que pertenecen a sociedades diferentes, como también se descalifica el conjunto de manifestaciones culturales que envuelven su estilo de vida.

Huyendo de floclorismo y de posturas paternalistas, desde BESTALDE elkarte, a través de dinámicas como la que hemos comenzado en Otxandio, pretendemos realizar un trabajo pedagógico en el conocimiento de los orígenes del fenómeno de la migración, de creación de empatía, de deconstrucción de prejuicios y de estereotipos, de reflexión en torno a los problemas que acarrear trasladarse a vivir a otro lugar, de acercamiento a las diferentes problemáticas, culturas y realidades venidas de otros lugares.

Frente a los mensajes negativos, nuestro objetivo es trabajar la diversidad en positivo, fomentar el mutuo conocimiento; Participar, para fomentar el protagonismo.

BESTALDE elkarte

Otxandio y la migración

La migración es un fenómeno que ha existido siempre, existe y existirá en el futuro también. Hace unas décadas, fueron muchos los que dejaron el pueblo y partieron a Sudamérica escapando de la guerra y la hambruna. Hoy en día también, no son pocos los que no encuentran trabajo y parten al extranjero en busca de trabajos relacionados con sus estudios. ¿Cuántas son las personas nacidas en Otxandio, o en tu pueblo, que residen fuera de él? Al mismo tiempo, son cada vez más las personas venidas a nuestro pueblo desde el extranjero por distintas razones. La gente tiene derecho a buscar su medio de vida en el mundo y, por tanto, solidariamente, debemos acoger con los brazos abiertos a las personas inmigrantes que llegan aquí.

Para un pueblo que cree que la diversidad que aporta la llegada de nuevos habitantes enriquece el desarrollo del mismo, es imprescindible acogerlos adecuadamente y esforzarse para que se integren en el pueblo. Al fin y al cabo Otxandio la componemos todas las personas que vivimos en él y todos somos importantes en el desarrollo social, humano y económico del pueblo.

Por otro lado, ¿cómo nos sentiríamos nosotros y nosotras en un pueblo en cualquier parte del mundo, cuya cultura, lengua y forma de vida y pensamiento nos es ajena? ¿Y si además sus vecinos nos trataran como si no existiéramos? No podemos mirar hacia otro lado ante este fenómeno; la migración es un tema que hay que abordar.

Nosotras y nosotros no queremos que las personas que llegan a nuestro pueblo renieguen de su cultura, su lengua y sus costumbres, ni que se sientan excluidas por otros habitantes por mantenerlas; nosotras y nosotros creemos en la convivencia entre diferentes y en la inclusión de todas las personas. Creemos que la convivencia entre culturas es posible y que esa diversidad enriquece tanto al pueblo como a la población. Por todo ello, se ha conformado en la Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Otxandio una subcomisión que trabaja la migración. Este grupo, antes que nada, ha analizado la situación de Otxandio. Se ha visto la necesidad de tomar el término inmigrante en su más amplia acepción para poder responder a cada una de ellas. Hay habitantes que llegan de otros pueblos de Euskal Herria que sin tener un problema expreso con la lengua agradecen una información básica para arreglarse mejor en el pueblo e integrarse con más facilidad. Por otro lado, hay personas venidas del Estado español que además del problema de la lengua, se encuentran con diferencias culturales relevantes. Que decir de las personas que llegan de Europa o de otros lugares del mundo.

Conscientes de que las necesidades de las recién llegadas son numerosas, la subcomisión trabaja para dar respuesta a las mismas teniendo siempre en cuenta que hay que trabajar con dos colectivos; con las personas recién llegadas por una parte, y con las personas que las acogen, es decir, las que viven en Otxandio, por otra.

Respecto a las primeras, se ha concretado un protocolo de acogida. Así, a la persona recién llegada, se le ofrecerá una guía de medios informándola de los distintos servicios. Además, se le ofrecerá la oportunidad de ponerse en contacto con representantes de la Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento. Éstas harían la primera acogida y las pondrían en contacto con el grupo de acogida del pueblo. Seguidamente, y si así lo deseara, algún miembro de este grupo le enseñaría el pueblo, le ofrecería la información básica y le resolvería sus primeras dudas. En adelante, esta persona podría convertirse en referente para la persona recién llegada.

Una vez ubicado el nuevo habitante, el siguiente paso sería el de ofrecerle las herramientas necesarias para facilitar su inclusión. Por una parte, se ofrecen clases para aprender euskera, ya que en un pueblo que ha decidido vivir en euskera como Otxandio, como en Euskal Herria en general, resulta una de las herramientas más eficaces para la integración social. Por otro lado, también se estudiaría la opción de participar en el programa del Gobierno Vasco Bidelagun orientado a estudiantes de tercer ciclo de primaria con dificultades en la escuela o que carecen de contextos, medios y estímulos apropiados.

Como se ha comentado anteriormente, es imprescindible trabajar este tema con la población, ya que sus actitudes y acciones serán determinantes en la integración de la persona recién llegada. Además, hay que tener en cuenta que la crisis económica está acrecentando las actitudes racistas y que frecuentemente nuestras actitudes se basan en prejuicios y rumores erróneos. Creemos que ante este tema los responsables políticos debemos actuar con responsabilidad y debemos difundir la idea de que la diversidad es enriquecedora para todos. Algunas declaraciones de ciertos representantes políticos, como los alcaldes de Gasteiz y Sestao, no ayudan en esta dirección.

Para acometer este trabajo de concienciación, se quiere trabajar, analizar y debatir el tema con la población, y desarrollar la perspectiva crítica. Para ello, se ha desarrollado un ciclo durante los meses pasados junto con las asociaciones GITE-IPES y BESTALDE. Creemos que los resultados han sido tan interesantes como fructíferos.

Al fin y al cabo, Otxandio la componemos gentes de multitud de colores y orígenes, y nos queda claro que tenemos el compromiso y la necesidad de sacar el mayor provecho de la riqueza que nos ofrece esa diversidad, mediante la integración y la convivencia, para favorecer al pueblo y sus habitantes.

Santi Uribe Laka
Otxandio Alkatea
Udal Migrazio Baztordearen izenean

Aniztasun Kulturala

Esan dezadan aurretik, aniztasun kulturala ez dela ez zona ez txarra. Gauza gehienak bezala, hori ulertzeko moduan, hori lantzeko moduan dago gakoa.

XX.-XXI. mendeek, globalizazioaren eraginez, merkantzien mugimenduak gain, pertsona ere areagotzea ekarri du. Pertsonen mugimendu hori ordea ez da hausazkoa. Pertsonen mugimendu fluxu handiekin erreparatu badiogu, ikusiko dugu ez dela kasualitatea pertsonak nondik nora goazen.

Gerrak direla eta, gerra guneeetatik gerrarik gabeko guneeetara mugitzen gara. Adibiderik argiena egun Libian gertatzen ari dena izango litzateke. Erbesterratu politikokoak lirateke figura ezagunena gure artean.

Egoera ekonomikoak direla eta, gune pobretuetatik, gune aberastuetara mugitzen gara. Mexikotik Estatu Batuetara, Amazoniatik Quitara, Rio de Janeiro edo Sao Paulora, Afrikatik Europara, e.a. Pertsonok gure bizi proiektuak garatu nahi ditugu eta hori egin ahal izateko leku aproposen bila mugitzen gara, horretarako aukerak ditugun heinean betiere. Horiek “migrante ekonomiko” bezala ezagutzen ditugu. Haien ezaugarri esanguratsuenetako bat, harrera gizartearekiko alderaketan, “pobreak” direla izaten da. Eta migrazio mugimenduen kopuru handiena beraiek osatzen dute egun.

Dena dela eta aurreiritzi askoren kontra, mundu mailan, mugimendu gehienak Estatu mugen barruan ematen dira. Zehazki, 2009an, 740 miloi mugimendu inguru eman ziren Estatu mugen barruan, 215 Estatu batetik besterakoa.

Horrela bada, Euskal Herria munduko espazio aberastu bat izanik (kapitalaren kontzentrazio mailari dagokionean), pertsona asko erakarriak ikusi dira bertaratzeko azken hamarkadetan.

Baina, esan dezadan, Euskal Herria ez da soilik maila ekonomikoan gune aberastu bat. Euskal Herria gatazka nazional (hizkuntzazkoa, kulturala, e.a.) bizi duen lurraldea da eta egitate instituzional propio bat ez duen heinean, migrazio ezberdinen aurrean ahuldade egoeran aurkitzen da. Berezitasun horrek hainbat egoera sortu ditu historikoki. Horietako asko talka kultural eta politiko bezala eman direlarik. Batetik, bertaratzen diren hainbat herritar, barne migrazio gisa kontsideratuak, bertako kultura eta hizkuntza bigarren mailakoa kontsideratzen duten neurrian, aipatu gatazka birsortzen dute. Bestetik, estatu kanpotik datozen migranteek hemengo errealitatea desitxuratuak besterik ez dute “ezagutzen” (alegia, bere ustetan Espainiara etorri dira, hizkuntza bakarra dagoen lekua, e.a.).

Aldi berean, bertakoei berdina gertatzen zaigu gurera iristen diren hainbat pertsonen inguruan. Guk, kasurik gehienetan, haien errealitate desitxuratuak besterik ez dugu “ezagutzen”. Adibiderik argiena, islamofobian aurkitzen dugu.

Beraz, hamarkadetako mugimenduen ondorioz, Euskal Herria anitza da. Hori ez da aukera bat. Horrela da, izaten jarraituko du eta horri aurre egin behar zaio. Gaindegiak 2013an publikatutakoaren eta zentsuetako datuen arabera, Euskal Herrian jaiok %71,5 gara, Espainian/Frantzian %19,5 eta beste toki batean %9,0. Beste toki horren barruan, 50 estatu baino gehiago daude. Hizkuntzen arloan ere, egun Euskal Herrian 100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira.

Batzuek, aniztasun horri aurre egiteko, xenofobiaren bidea hartu dute. Bai Euskal Herrian, bai Europan eta beste leku batzuetan ere. Xenofobiaren “bitxikeria” zera da, leku guztietan arrazoi antzekoak aipatzen direla. “Kanpotarrak” gure dirua kentzera datoz, gure lanak, gure etxebizitzak, gure babes sozialerako mekanismoetatik bizitzera ... berdin dio Gasteizen izan, Alemanian edo Londresen. Xenofobiaren arrazoiak berberak dira leku guztietan. Aldatzen den bakarra migrantearen jatorria da.

Errealitate horri aurre egiteko beste bide bat, eta Euskal Herritarro, nazio gutxiagotua garen heinean, komeni zaiguna nire ustez, elkar ezagutzea da. Kultura eta hizkuntza ezberdinen arteko elkar ezagutzea, elkar aitortzea eta errespetatzea eta elkarrekin bidea egitea. Euskal Herrira datorrenari, bere behar fisiko-materialei erreparatzeaz gain, guztiz beharrezko dena bestalde, bere behar kultural-afektibo-sozialei ere erreparatu beharra diogu. Bera ezagutu, berak gutaz dakiena ezagutu eta guztiok batera, guztion beharrak eta nahiak, ahal den neurrian gehien errespetatuz, gure herria eraikitzen jarraitzea.

Azken bide honetarako, euskal herritarren jarrera nagusiak positiboak dira. 2014an Aztikerrek egin zuen inkestan, orokorrean jarrera irekia dugu ezberdinaren aurrean eta besteaz ikasteko, bere egoera ulertzeko eta haien beharrak asetzen saiatzeko prest gara. Ez da bide erraza, hori ere argi izan dezagun. Badira ere arretaz eta tentuz ibili behar dela esaten diguten datu eta arrazoi nahikorik. Baina horren aurrean, ez dezagun bide laburrik hartu, ezta bide okerrik ere. Elkarbizitzaren bidea, bide luzea eta konplexua da, baina jendarte aberatsagoa, kohesionatuagoa eta justuagoa du fruitu. Merezi du.

Asier Etxenike
Soziologoa

Ezin dugu ahanzi, halaber, arrazoi ekonomiko eta politikoen gure herrian eragin duten tradizio emigratzaile handia.

Egungo euskal jendarte ezingo litzateke ulertu migrazioek egitura ekonomiko, politiko eta identitarietan eragiten duten sakoneko eragina kontutan izan gabe. Etengabe eraikitze prozesuan den jendarte baten aurrean aurkitzen gara.

40 urte betetzear, GITE-IPESek beti landu izan duen lerroa izan da migrazio fenomenoena eta Euskal Herriaren aniztasunarena. Gaiaren inguruko lan eta argitalpen anitzez gain, azpimarratzekoa da GITE-IPESek “Gau Eskolen” dinamikari emandako bultzada, zeinetan bilboko San Frantzisko eta Uribarri auzoetan euskararen ezagutzaren inguruan inklusiorako espazioak ematen diren.

Pertsona migratzaileak historia, hizkuntza, kultura eta identitate propio baten jabe diren subjektuak dira eta ezin zaie berau ukatzea eskatu herri honetan eskubide osoko herritarren gisa ezagutzeko. Gainera, beharrezkoa da pertsona migratzaileen

Una sociedad en construcción continua

El fenómeno de las migraciones en Euskal Herria es tan viejo como su propia historia. Al tradicional flujo de personas venidas de los diferentes pueblos y regiones de los Estados tanto francés como español, debemos añadir también la llegada de personas de diversos países y lugares del mundo, consecuencia directa de los actuales procesos de globalización, a los cuales Euskal Herria no es ajena. Esto hace que la inmigración en Euskal Herria sea heterogénea y diversa.

Tampoco se puede olvidar la enorme tradición emigratoria de nuestro pueblo a lo largo de la historia, debida a causas bien económicas o políticas.

La sociedad vasca de hoy no se podría entender sin tener en cuenta la profunda influencia que suponen en la estructura económica, política y de las identidades culturales y lingüísticas las migraciones. Nos encontramos ante una sociedad en continuo proceso de construcción.

Cerca de cumplir los 40 años de existencia, una de las líneas de trabajo que GITE-IPES siempre ha trabajado ha sido el fenómeno de las migraciones y de la diversidad en Euskal Herria. Además de diversos trabajos y publicaciones en torno a esta temática, es de resaltar el impulso que GITE-IPES dio a las “Gau eskolak” dinámicas que actualmente funcionan en los barrios bilbaínos de San Francisco y de Uribarri, donde se generan espacios de inclusión en torno al conocimiento del euskara.

Las personas migrantes son sujetos con una historia, una lengua, una cultura, una identidad propia a la que no deben estar

obligados a renunciar para ser reconocidos como ciudadanía de pleno derecho de este pueblo. Además, es necesario afrontar adecuadamente los prejuicios y la estigmatización contra las personas migrantes, eliminando de nuestro entorno actitudes xenófobas y/o de rechazo.

Otxandion garatu ditugun Jardunaldiak sentsibilizatorako lan lerro pedagogiko eta formatibo bat abiatu nahi dugu, jatorri aniztasunaren aurrean elkar ezagutzarako politikak emateko baldintzak sortze aldera. Euskal Herriko herri eta hirietako egunero elkarbizitza hobetzea sustatu nahi dugu gure artean bizi diren, eta gure jendartearen partaide diren, jatorri anitzeko pertsonekin batera.

Kohesio, elkarbizitza, eta, lankidetzan oinarritutako jendarte baterako bidean lanean diardugu. Jendarte mailaketa eragiten duen jendarte batetik (pribilegioak eta aukera ezberdintasunak dituen) guztientzako eskubide guztiak onartzen dituen jendarte batera igarotzeko. Jendarte zatitzen duen eredu batetik elkar ezagutza eta aitortza bultzatzen duen jendarte batera. Sistemaren hutsuneak ezkutatu eta arduradunak ekiditen dituen jendarte batetik jendartearen sintomei errotik eutsiko dien batera.

obligados a renunciar para ser reconocidos como ciudadanía de pleno derecho de este pueblo. Además, es necesario afrontar adecuadamente los prejuicios y la estigmatización contra las personas migrantes, eliminando de nuestro entorno actitudes xenófobas y/o de rechazo.

Con Las Jornadas que se han desarrollado en Otxandion se quiere comenzar una línea de trabajo pedagógico, formativa y de sensibilización que genere y cree las condiciones necesarias para poner en marcha políticas de mutuo reconocimiento ante la diversidad de orígenes. Impulsar así la mejora de la convivencia cotidiana de los pueblos y ciudades de Euskal Herria, junto a ese amplio sector de personas y colectivos procedentes de otros pueblos y que viven entre nosotras y nosotros, que son parte integrante de nuestra sociedad.

Trabajamos por una sociedad basada en la cooperación, en la convivencia y en la cohesión. Por el tránsito de una sociedad que genera segregación social (con sus privilegios y diferencias) a una sociedad que reconozca todos los derechos para todas las personas. De un modelo que divide a la sociedad a uno que fomente el conocimiento y reconocimiento mutuos. De una sociedad que oculta los fallos del sistema y sus responsables, a una que aborde los síntomas de la sociedad desde la raíz.

GITE-IPES

Migrazioa eta osasun mentala

Oihana San Vicente Saez de Cerain
Psikologoa

Migrazioa, prozesu horretan inplikatuak dauden pertsona guztientzako aldaketa prozesu bat da, positiboa eta/edo negatiboa. Edozein aldaketa bezala, hainbat galera suposatzen ditu; kasu honetan, jatorrizko herrialdean utzitako guztiarekin lotutako galerak dira (familia, lurra, hizkuntza, kultura...). Migranteak izango dituen baliabideen arabera, maila handiagoan edo txikiagoan, migrazio prozesuak estres psikologikoa eta arazo emozionalak sortuko ditu ezinbestean.

Migrazioaren inguruko ikerketa, eztabaida eta analisi asko egin dira azken hamarkadetan, migrazioaren fenomeno globalizatu denetik are gehiago. Baina ikerketa edo esku-hartze horiek ekonomikoak, demografikoak, kulturalak... izan dira nagusiki. Askotan, migrazioaren alde humanoa, psikologikoa baztertua

edo "ahaztua" izan da, psikologiaren adarretik hasita. XX. menderarte ez dira era sistematikoan aztertu migrazioa eta psikopatologiaren arteko harremanak, eta azken urteetan soilik ari da pisua hartzen migrazioaren ondorioz pertsona orok sufritzen dituzten desoreka edo nahaste emozionalen azterketa sakona.

Migrazioak ez du, bere horretan, buru-nahasterik sortzen, hori oso argi utzi nahi dugu. Baina galerak, deserrotzeak, urruntzeak, bakardadeak, berriari egokitu beharrak... estresa sortzen du eta ezinbestekoa den dolu bat garatzea ekartzen du. Dolu hori modu positiboan egiten da askotan, halere, estres hau arazo psikologiko eta emozionalak izateko arrisku faktore bat dela ezin ukatzekoa da.

Migración y salud mental

Oihana San Vicente Saez de Cerain
Psikologoa

La Migración es un proceso de cambio, positivo y/o negativo, para todas las personas implicadas en él. Como todo cambio, supone ciertas pérdidas; en este caso, son pérdidas relacionadas con todo lo que se deja en los países de origen (familia, tierra, lengua, cultura,...). Dependiendo de los medios de los que dispongan las personas migrantes, el proceso de migración creará en ellas en mayor o menor medida, pero necesariamente, estrés psicológico y problemas emocionales.

Estas últimas décadas se han realizado numerosos estudios, debates y análisis sobre el fenómeno migratorio, más aún desde que éste se ha globalizado. Aún así, estos estudios e intervenciones han sido de carácter económico, demográfico, cultural,... principalmente. El aspecto humano y psicológico de la migra-

ción ha sido muchas veces despreciado u "olvidado", partiendo de la misma rama de la psicología. Hasta el siglo XX no se han estudiado de manera sistemática las relaciones entre la migración y la psicopatología, y solo estos últimos años está tomando peso el estudio profundo de los desórdenes emocionales que produce la migración en todas las personas.

La migración en sí no produce trastornos mentales, eso lo queremos dejar claro. Pero las pérdidas, el desarraigo, la lejanía, la soledad, el tener que adaptarse a lo nuevo,... genera estrés y un necesario duelo a desarrollar. Es cierto que ese duelo se hace de manera positiva muchas veces, pero no se puede negar que este estrés es un factor de riesgo para tener problemas psicológicos y emocionales.

Jendarte bat eraikuntza etengabean

GITE-IPES

Migrazioen fenomeno Euskal Herrian bere historia bezain zaharra da. Espainiar zein frantziar estatutik heldu diren pertsonen fluxu tradizionalari, munduko txoko eta herrialde ezberdinetatik

heldu diren pertsonak gehitu behar dizkiogu, Euskal Herria ez baita mugimendu hau eragiten duen mundualizaziotik at bizi. Honen eraginez, Euskal Herrian inmigratioa heterogeneoa eta anitza da.

Diversidad Cultural

Vaya por adelantado que la diversidad cultural no es buena ni es mala. Como la mayoría de las cosas, la clave reside en la manera de entenderla y trabajarla.

A raíz de la globalización, los siglos XX y XXI han generado un aumento del movimiento, no solo de mercancías sino también de personas. Este movimiento de personas no es aleatoria. Si nos fijamos en los flujos principales, veremos que no es casualidad de dónde a donde nos movemos las personas.

A consecuencia de las guerras, nos movemos de zonas en conflicto a zonas sin guerra. El ejemplo más claro lo vemos hoy en Libia. Los refugiados políticos serían la figura más conocida en nuestro ámbito.

En cuanto a las situaciones económicas, nos movemos de zonas empobrecidas a zonas enriquecidas. De México a Estados Unidos, de la Amazonia a Quito, Rio de Janeiro o Sao Paulo, de África a Europa, etc. Las personas queremos desarrollar nuestros proyectos de vida y nos movemos a lugares apropiados para ello, siempre que tengamos la oportunidad de hacerlo. Conocemos a estas personas como "migrantes económicos". Una de las características de éstas, es que en comparación con la población receptora, éstas son "pobres". La mayor parte de las migraciones hoy en día son de este tipo.

De todas formas, y en contra de muchos prejuicios, la mayoría de movimientos se dan dentro de los límites de los Estados. Concretamente, en 2009 se dieron al rededor de 740 millones de desplazamientos dentro de los Estados, mientras que de un Estado a otro fueron en torno a 215 millones.

Así las cosas, y siendo Euskal Herria un espacio enriquecido en el mundo (en cuanto a concentración de capital se refiere), las últimas décadas muchas personas se han visto atraídas a venir. Pero Euskal Herria no es solamente un lugar enriquecido en lo económico. Euskal Herria es un lugar que vive un conflicto nacional (de lengua, cultura, etc.) y al no disponer de una realidad institucional propia, se encuentra en debilidad ante las distintas migraciones. Esa diferencia ha generado numerosas situaciones históricamente. Muchas de ellas se han dado como choques culturales y políticos. Por una parte, muchas personas de las que vienen, consideradas como migración interna, alimentan dicho choque al considerar la cultura y la lengua autóctonas de segundo nivel. Por otro lado, los migrantes que provienen de fuera del estado solo "conocen" una realidad desfigurada (es decir, a su entender vienen a España, lugar donde solo hay una lengua, etc.)

Al mismo tiempo, a la población autóctona nos pasa lo mismo con las personas que vienen, ya que en muchos casos solo "conocemos" sus realidades desfiguradas, como ocurre con el islam.

Así pues, a consecuencia de décadas de movimientos, Euskal Herria es diversa. Eso no es una opción. Es así, así seguirá siendo, y hay que afrontarlo. Según lo publicado por Gaindegia en 2013 y datos censales, las personas nacidas en Euskal Herria son el 71,5%, un 19,5% nació en España/Francia y un 9% en otro lugar. Dentro de ese otro lugar, encontramos más de 50 estados. En cuanto a las lenguas que se hablan en Euskal Herria, encontramos más de 100.

Para hacer frente a esta diversidad hay quien opta por la xenofobia, tanto en Euskal Herria como en otros lugares de Europa. Lo "curioso" de la xenofobia es que en todas partes tiene razones parecidas. "Los de fuera" vienen a quitarnos nuestro dinero, nuestros trabajos, nuestras viviendas, a vivir de nuestros mecanismos de protección social,... lo mismo en Gasteiz que en Alemania o Londres. Las razones de la xenofobia son las mismas en todos lados. La única variante es la procedencia de la persona migrante.

Otra forma de hacer frente a esta realidad, la que a mi entender nos conviene en Euskal Herria en tanto que somos una nación minorizada, es la del mutuo conocimiento. El mutuo conocimiento entre culturas y lenguas, el reconocimiento y el respeto mutuo y hacer el camino juntos. Además de fijarnos en las necesidades físico-materiales de las personas que vienen a Euskal Herria, lo que es completamente necesario, debemos también fijarnos en sus necesidades culturales-afectivas-sociales. Conocer a la persona migrante, conocer lo que sabe de nosotros, y entre todos y todas, seguir construyendo nuestro país respetando lo máximo posible las necesidades y ansias de todos y todas.

La actitud de las personas que vivimos en Euskal Herria para con esta manera de enfrentar la migración es positiva. Como refleja el estudio realizado por Aztiker en 2014, en general tenemos una actitud abierta ante la diferencia y estamos dispuestos a aprender del otro, conocer su situación y satisfacer sus necesidades. No es un camino fácil, eso también hay que tenerlo claro. Hay también suficientes datos y razones que nos llevan a ser cautos. Pero ante ello, no tomemos el camino corto, ni el camino erróneo. El camino de la convivencia es largo y complejo, pero tiene como fruto una sociedad más rica, cohesionada y justa. Merece la pena.

Asier Etxenike
Soziologoa

Aniztasun Kulturala

Ehunka miloi pertsonok migratu dute historian zehar. Milaka euskaldunek emigratu dute eta hona ere milaka lagun etorri zaizkigu. Ñabar-durak ñabardura, motibo eta logika beretsuak ematen dira migratzaile batzuen zein besteen kasuan. Euskal Herrian gertatu diren migrazio prozesuek -bereziki azken bi mendetan- gure herriaren izaeran eragin nabarmena izan dute: demografian, baita kultural eta identitateen konfigurazioan ere.

Hau guztia aztertzeko kontzeptu eta teoria ezberdinak aintzat hartu behar dira. Edozein modutan ere, jatorri eta kultur aniztasuna kudeatzeko ezinbestekoa da -maiz gertatzen dena- estatutik gabeko nazioen egoera eta berezko ikuspuntua ez galtzea.

Mario Zapata

Aniztasun Kulturala

Cientos millones de personas han migrado en la historia. Miles de euskaldunes han emigrado y aquí también han llegado miles de personas. Los motivos y las lógicas se repiten con matices en ambos casos. Los procesos migratorios acaecidos en Euskal Herria -sobre todo los últimos dos siglos- han tenido una notable influencia en nuestro pueblo: en la demografía, pero también en la cultura y en la configuración de la identidad.

Para estudiar todo esto, hay que tomar en cuenta distintos conceptos y teorías. De todas formas, para gestionar la diversidad de origen y cultural -lo que ocurre frecuentemente- es imprescindible no perder la perspectiva de las naciones sin estado.

Mario Zapata

Banaiz bagara

Hitzaldian nire ibilbidea euskal hiztun gisan esplikatu dut, bide horretan zer aurkitu dudana eta zein ondorio ateratu ditudan. Ondorio horretako bat Banaiz Bagara elkartearen sortzea zen eta elkartearen historia, ekintzak, komunitatea eta lorpenak eta mugak ere kontatzen ditut. Banaiz Bagara elkartearen jardueretan hasieratik euskara tresna bat bezala ikusi genuen, hau da, elkarbizitzarako eta komunikaziorako tresna. Tresna hori hartuta sor daitezke harreman berriak herri batean, jatorri eta kultura ezberdineko jendearen artean - bertakoak eta kanpokoak -. Hala ere, euskaldun askorentzat kanpoko jendeekin komunikatzeko tresna gaztelania da eta euskarak, aldiz, leku sinboliko edo idealizatuta hartzen du. Hitzaldiaren bukaeran guztion artean horren arrazoien gainean hausnartzen dugu eta irtenbiderako proposamen ezberdinak sortzen dira.

Petra Elser

Banaiz bagara

En la charla explico mi recorrido como euskaldun, qué me he encontrado en ese camino y qué conclusiones he extraído de él. Una de esas conclusiones fue la creación de la asociación Banaiz Bagara, cuya historia, acciones, comunidad, logros y límites doy a conocer.

Desde los principios de la actividad de la asociación Banaiz Bagarara consideramos el euskera como una herramienta, una herramienta para la convivencia y la comunicación. Es la herramienta que posibilita la creación de nuevas relaciones en un pueblo entre gentes de origen y culturas diversas - sean de fuera o autóctonas -. Aún así, la herramienta usada por muchos euskaldunes para comunicarse con gentes que vienen de fuera es el castellano, relegando el euskera a un ámbito simbólico e idealizado. En la parte final de la charla, se reflexiona sobre las razones de esta práctica y surgen propuestas para su superación.

Petra Elser

Aurreiritziak eta joerak

Gordon Allport, Harvard Unibertsitateko psikologiako irakasleak eman zuen aurreiritzien definizioa The Nature of Prejudice (1954) lanean. Aurreiritzia, kolektibo jakin baten parte izate soilagatik pertsona batekiko adierazten den jarrera oldarkor eta konfiantza gabea da. Estereotipoak, berriz, talde osoari egotzen zaizkion talde horretako zenbait kideren ezaugarri jakinen leporatze orokortuak dira.

Aurreiritziak eta estereotipoak, diskriminazioarekin batera, elkar banandurik ulertzeko zailak diren terminoak dira. Eta hala ere, hauek zeharkaturik bizi gara. Zurrumurruek zeharkatzen gaituzte. Pertsonok dinamika sozialen arabera bizi gara, eta dinamika hauetako bat bera ere ez dago zurrumurruetatik salbu. Zurrumurruek, beren egiatasuna frogatu gabe pertsona batetik bestera hedatzen diren beste pertsona, talde edo gertakarien gaineko adierazpenak dira. Sinesgarritasuna dute, ez adierazpenok sostengatzen dituzten zantzu argiak daudelako, baizik eta hauek sinesten dituen jende asko dagoelako (Sustein, 2010). Zurrumurruaren erakarpen faktore handiena, sortzen duen dependentzia emozionala eta bere barreiatze gaitasunean datza.

Prejuicios y tendencias

La definición de prejuicio viene dada por el profesor de psicología de la Universidad de Harvard Gordon Allport en su trabajo The Nature of Prejudice (1954). El prejuicio es la actitud impetuosa y desconfiada hacia una persona por el mero hecho de pertenecer a un colectivo dado. Los estereotipos, en cambio, son imputaciones generalizadas de ciertas características de algunos miembros de un grupo para con todo el grupo.

Los prejuicios y los estereotipos, así como la discriminación, son términos que vienen de la mano. Aún así, vivimos atravesados por ellos. Los rumores son declaraciones que se extienden de una persona a otra sobre otras personas, grupos o hechos sin que su veracidad este demostrada. Gozan de credibilidad, no por disponer de indicios claros que las sostengan, sino porque existe mucha gente que cree en ellas (Sustein, 2010).

El mayor atractivo del rumor reside en la dependencia emocional que genera y en su capacidad de difusión. Es un mensaje corto y simple, cuya función social es la rápida respuesta que

Mezu labur eta sinplea da, eta ez-ezagutza baten ondorioz sortzen zaigun galdera edo arazo bati ematen dion erantzun azkarra da bere funtzio soziala (arriskutsua, kasu honetan). Izan ere, maiz, mezuotan aurkitzen dugunak geure interesak arriskuan jartzen ditu; eta hau onartu ezin dugunez, mezua bera gehiago hedatzen dugu. Beti ere, mezu horren hedatzaile garena onartu gabe, jaso eta zabaltzen dugun mezua zurrumurrua denaren kontzientziarik ez baitugu izaten. Hala, eskusioaren elementu lehena bilakatzen dira, zeintzuek injustiziak eta gatazka sozialak sortzen dituzten.

Euskal Herria eta migrazioez ari garela, euskal herritarren identitatearen aniztasunaren inguruan Aztikerrek egin azken ikerketan datu interesgarriak irten dira. Jatorri jakin bateko kolektiboko kideen kopurua handia den neurrian, eta Euskal Herrian denbora gehiago daramaten neurrian, Sinpatia Indizeak positiboa izateko joera hartzen du. Alegia, elkar ezagutza dugu elkar bizitza egoki baten aldagai nagusia. Hau da, jatorri ezberdineko jendearen kontaktuak eta harremanak sendotu ahala, konfiantza eta sinpatia handitu egiten dira. Hego Euskal Herrian, baina, sinpatia maila apalenak jaso dituzten bi migratzaile-kolektiboak, Marokotik eta Errumaniatik etorritakoenak dira. Eta bereziki Marokoko jatorria duten lagunekiko jarrerak zer pentsatua eman beharko liguke. Gorago esandakoa emendatzen baitu aipatu jarrerak.

Markal Ormazabal

ofrece a problemas y preguntas que surgen del desconocimiento (muy peligroso en este caso). Esto ocurre porque lo que encontramos en estos mensajes a menudo pone en riesgo nuestros intereses, lo que no podemos asumir y nos lleva a difundir aún más dicho mensaje. Siempre sin percatarnos que somos difusores de ese mensaje, al no tomar conciencia de que eso que nos llega y trasladamos es un rumor. Así se convierten en el elemento primero de la exclusión y generan injusticias y conflictos sociales.

A propósito de Euskal Herria y la migración, son interesantes los datos que ofrece el último trabajo de Aztiker en torno a la diversidad identitaria de las personas que vivimos aquí. Según crece el número de miembros de un colectivo dado, y crece también el tiempo que llevan en Euskal Herria, el Índice de Simpatía tiende a ser positivo. Ciertamente, el conocimiento mutuo es la variante principal para una convivencia adecuada. Es decir, según se afianzan los contactos y relaciones entre personas de distinto origen, la confianza y la simpatía crecen. Las dos comunidades de migrantes que menores índices de simpatía reciben en Hego Euskal Herria son las provenientes de Rumania y Marruecos, y las actitudes hacia estas últimas deberían darnos qué pensar especialmente, ya que van en contra de lo dicho anteriormente.

Markal Ormazabal